



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**LESAKA**

**Derrigorrezko diru-bilketa**

Administrazio honi egotz ez dakizkikeen arrazoiengatik Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 99.4 artikuluan xedatutakoaren arabera interesdunari edo horren ordezkariari jakinarazpena egiterik izan ez denez, eta, aipatu artikuluan xedatutakoaren arabera, egin diren jakinarazpen ahaleginak espedientean jasota, ediktu honen bidez dei egiten zaie ordainketa egitera behartuta daudenei eta horien ordezkariari aurrez aurre jakinarazteko espedientean jasotako prozeduren ondoriozko administrazio-egintzak. Agertzeko epea hamabost egun naturalekoa da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita: asteleheneetik ostiralera, goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu bietara, bulego kudeatzailean (Eneko Aritza kalea 16, etxabea, 31007 Iruña). Epe horretan agerraldirik egin ez bada, jakinarazpena egintzat emango da, lege-ondorio guztietarako, agerraldia egiteko epea bukatu eta hurrengo egunean bertan.

**OHARTARAZPENAK**

Egitate honen aurka honako helegiteetako bat jar daiteke hautaz:

a. Berraztertze errekurtso, egintza eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

b. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

c. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Premiamendu-prozedura, nahiz eta helegitea aurkeztu, Nafarroako Foru Erkidegoko Diru Bilketako Erregelamenduko 166. artikuluan xedatutako moduan eta baldintzetan soilik geldiaraziko da.

Lesaka, 2022ko Ekainaren 30ean.

Diru Biltzaile Exekutiboa,



Iñigo de Loyola Urdangarin Zurutuza.

**DEITUAK DIREN ZORDUNAK**

Jakinarazten den egitatea: Premiamendu probidentzia

Erreferentzia: 153000/00007/2022

Espedientea	Izena	Kontzeptua	Urtea/Seihilekoa	Ordaintzeko dago en zenbatekoa	Premiamendu data
44567901L		Ibilgailu zerga	2022/	12,52	13/04/2022
Y5888071Q		Ibilgailu zerga	2022/	161,11	13/04/2022